

IDEIA BIKAINA¹

Bazen behin gizon bat ibili ezin zena. Jaiki ere ezin zitekeen egin.

- Biziki gustatuko litzaidake zuon antzeko izatea, esaten zien adiskideei.

Gizona ezin zen ibili, baina lau lagun onak zituen laguntzeko prest. Egun batean, ideia bikaina izan zuten.

- Jesusengana eramango zaitugu, jakinarazi zioten. Jesusek sendatuko zaitu.

Gizona ohatila batean jarri eta Jesus zegoen etxeraino eraman zuten. Baina egundoko jendetza zegoen ate ondoan eta ezinezkoa egin zitzaien Harengana hurbiltzea.

- Eta eskaileretatik gora igotzen bagara?, esan zuen lagunetako batek.

Eskailerak etxearen kanpoaldean zeuden. Handik igo ziren goraino...

... teilatura iristeraino. Etxeak teilatu laua zuen, lokatz lehorrez eta adarrez egina. Zulo handi bat egin eta handik jaitsi zuten ohatila Jesus zegoen lekuraino.

Bat-batean, hantxe zegoen gizona Jesusen ondoan!

Jesusek ohatilan zegoenari begiratu zion. Gizonak, lau adiskideei begiratu, eta irribarre egin zien.

- Neuk sendatzea nahi duzue, ezta?, esan zuen Jesusek. Egingo dut, bai. Sendatuko dut.

Gero esan zion gizonari:

- Egin dituzun gauza txar guztiak barkatuta dituzu. Orain altxatu. Hartu ohatila eta zoaz etxera!

Eta halaxe egin zuen!

¹ **Alexander, P.** "Zure lehen Biblia". Giltza, 2004, 342-345 or.